

<b><u>HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTA</u></b>	<b><u>ACTA DE LA COMISIÓN DE URBANISMO</u></b>
<p><b>Data:</b> 2013ko abenduaren 17  <b>Ordua:</b> 18:00</p>	<p><b>Fecha:</b> 17 de diciembre de 2013  <b>Hora:</b> 18:00</p>
<p><b>Bertaratuak:</b>  <b>Udaleko ordezkariak:</b> Garbiñe Elizegi (Bildu), Mari Carmen Iribarren (UPN), Begoña Sanzberro (UPN), Iñigo Iturralde (Baztango Ezkerra) eta Maite Iturre (NaBai 2011).  Cristina Arregi (udaleko arkitektoa), eta bertze 10 herritar.</p>	<p><b>Asistentes:</b>  <b>Representantes municipales:</b> Garbiñe Elizegi (Bildu), Mari Carmen Iribarren (UPN), Begoña Sanzberro (UPN), Iñigo Iturralde (Baztango Ezkerra) eta Maite Iturre (NaBai 2011).  Cristina Arregi (arquitecta municipal) y otros 10 vecinos.</p>
<p><b>1. Eraikin publikoen egoera.</b>  Udal arkitektoak azaltzen du gaia: Udal eraikinekin izan diren arazoak direla eta, udalak eraikin bakoitzaren fitxa teknikoa eta mantenimendu plan bat egin beharra ikusten du. Modu honetan eraikinen egoera hobeki mantenduko da eta gastuak murriz daitezke.</p>	<p><b>1. Situación de los edificios públicos.</b>  La arquitecta municipal expone el asunto: por los problemas surgidos con los edificios municipales se ve la necesidad de hacer una ficha técnica y un plan de mantenimiento de cada edificio municipal. De esta manera la situación de los edificios se mantendrá mejor y los gastos se pueden reducir.</p>
<p><b>2. Etxebizitza hutsak:</b>  Udalak etxebizitza publiko hutsen azterketa bideratu du. Herriko alkateei herri bakoitzeko etxebizitzaren egoeraren berri emateko eskatu zaie. Udalak hurrengo osoko bilkurarako etxebizitza hauen kudeaketarako plangintza bat aurkeztu nahi du. Alokairu sozialeko etxebizitzetarako 40 familia daude zain. Nafarroako Gobernuarekin ere kontaktatu da Oronoz-Mugairiko etxebizitzak ere alokairu sozialerako erabiltzeko. Okupatuta dauden kasuan, familien gizarte egoera ere aztertuko da.</p>	<p><b>2. Viviendas vacías</b>  El Ayuntamiento ha tramitado el estudio de las viviendas públicas vacías. A los alcaldes jurado de les ha solicitado que informen sobre la situación de las viviendas de su localidad. El Ayuntamiento quiere presentar al próximo Pleno un plan para la gestión de estas viviendas. Hay 40 familias en espera para viviendas de alquiler social. Se ha contactado con el Gobierno de Navarra para utilizar las viviendas de Oronoz-Mugairi para alquiler social. En el caso de las viviendas ocupadas, se estudiará también la situación de esas familias.</p>
<p><b>3. Termitak</b>  Termiten afera aztertu zen. Jaime Urrutia karrikako bizilagunei eskutitza bidali zitzaizen beren etxeetan arazoa baldin bazuten jakinarazteko. Gutxiak (4k) aurkeztu zuten. Bertze aldetik aurrekontuak eskatu ziren azterketa egitekotan zenbat izango zen jakiteko. Etxebizitza bakoitzeko 3.000 euro</p>	<p><b>3. Termitak</b>  Se analizó el asunto de las termitas. A los vecinos/as de la calle Jaime Urrutia se les remitió una carta para que notificaran si en su vivienda había algún problema. Pocos (4) lo han hecho. Por otro lado, se solicitaron presupuestos para saber, en el caso de que se hiciera un informe, cual sería su coste. Por cada vivienda la cuantía</p>

<p>inguruko kostua izango zen eta arazoa konpontzea ez da guztiz bermatzen. Hau ikusita diagnosiarekin aurrera ez egitea erabaki zen. Hala ere, etorkizunean arazoa handituz gero berriz aztertzeke aukera izango litzateke.</p>	<p>sería de unos 3.000 euros y no se garantiza totalmente erradicar el problema. Visto esto, se decide no seguir adelante con el diagnóstico. Sin embargo, si en el futuro aumenta el problema, cabría la posibilidad de estudiar el tema de nuevo.</p>
<p><b>4. Nafarroako Gobernuako Ondare Zerbitzuaren betebeharreko txostena</b></p> <p>Nafarroako Kontseiluak Gartzaingo Benta Zaharraren inguruan hartutako erabakiaren ondorioz, Udalak argibideak eskatu dizkio Nafarroako Gobernuako Ondare zerbitzuari txostenak lotesleak noiz diren argitzeko.</p> <p>Nafarroako Ondare Arkitektonikoaren Zerrendan dauden eraikinen kasuan, Udalak eskatuko du txostena Zerbitzuari eta bertan azaldutako irizpideak jarraituko dira lizentzia ematerakoan.</p> <p>Planeamendu berriari begira, katalogoak zehaztuko du babes mota eta katalogoaren barne dauden eraikinetarako txostena loteslea izango da. Bitartean, Udalak orain arteko irizpideekin jarraitzea erabakitzen du. Ondare Zerbitzuaren txostena eskatzen denean berretsi egingen du irizpide orokor bezala. Etorkizunera begira, katalogazio berriari zaharberritzeari lehentasuna eman nahi zaionez araudia malgutzeko beharra ikusten du eta horren alde egingen du lan.</p>	<p><b>4. Informe a cumplimentar del Servicio de Patrimonio del Gobierno de Navarra</b></p> <p>Como resultado del acuerdo tomado por el Consejo de Navarra en torno a Benta Zaharra de Gartzain, el Ayuntamiento le solicitará aclaraciones al Servicio de Patrimonio del Gobierno de Navarra sobre cuándo son vinculantes los informes.</p> <p>En el caso de los edificios que están en la lista de Patrimonio Arquitectónico de Navarra, el Ayuntamiento le solicitará informe al Servicio y los criterios que se marquen se seguirán a la hora de conceder licencias.</p> <p>De cara al nuevo planteamiento, el catálogo determinará el tipo de protección y el informe será vinculante para los edificios catalogados. Entre tanto, el Ayuntamiento decide seguir con los criterios utilizados hasta ahora. Cuando se solicite informe del Servicio de Patrimonio, lo ratificará como criterio general. En el futuro, como se le quiere dar prioridad a la rehabilitación, ve necesaria flexibilizar la normativa y se mostrará favorable a ello.</p>
<p><b>5. Aroztegia</b></p> <p>Aroztegiaren inguruko epaiaren berri ematen da. <i>Aroztegia... eta gero zer?</i> Plataformak jarritako helegitearen inguruko epaiak bertan behera uzten du Aroztegia proiektua. Beraz, lur horien kalifikazioa hasierako egoerara itzuliko da, lur ez urbanizagarria izanen da. Bitartean, proiektuaren inguruko beste epaiak aurrera doaz eta proiektua geldituta dagoenez horiek ere deuseztatzea eskatu die Udalak epaitegiei. Auzitegi Gorenera joateko eskaera egin du sustatzaileak eta erantzunaren zain dago Udala.</p>	<p><b>5. Aroztegia</b></p> <p>Se informa acerca de la sentencia sobre Aroztegia. La sentencia del recurso interpuesto por la plataforma <i>Aroztegia... eta gero zer?</i> anula el proyecto Aroztegia. Así pues, la calificación de esos terrenos volverá a su situación inicial, será terreno no urbanizable. Mientras tanto, los otros juicios sobre el proyecto siguen adelante y, al estar el proyecto paralizado, el Ayuntamiento ha solicitado a los juzgados que esos también se paralicen. El promotor ha solicitado acudir al Tribunal Supremo y el Ayuntamiento está a la espera.</p>

<p><b>6. Elizondoko AR-1 eremuan planteatutako ALDAKETA EGITURATZAILEA</b></p> <p>Espedientearen inguruko azalpenak eman dira. 2010eko abenduan Planeamendu aldaketari behin-behineko onspena eman zitzaion. Nafarroako Gobernuaren eskuetan dago behin betiko onspena ematea ala ez. Hala ere, Sustapen Departamentuak Lur antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren txostenak planteatzen dituen hirigintza aferen inguruan Baztango Udalaren balorazioa eskatu zuen. Udalaren balorazioa Nafarroako Gobernuaren txostenarekin bat egiten du eta horrela jakinarazi zitzaion Departamentuari. Honekin batera egiten ari den Udal Planaren LOEE dokumentuan ez zela eremu horretan garapenik ikusten azaltzen zen. Orain Nafarroako Gobernuak osoko bilkurak txosten hau berrestea eskatzen du eta hurrengo osoko bilkuran egingen da.</p>	<p><b>6. MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE planteada en el polígono AR-1 de Elizondo</b></p> <p>Se informa sobre el expediente. En diciembre de 2010 se aprobó inicialmente la Modificación del Planeamiento. Está en manos del Gobierno de Navarra aprobarlo definitivamente. Sin embargo, el Departamento de Promoción solicitó la valoración del Ayuntamiento de Baztan sobre los asuntos de urbanismo que plantea el informe del Servicio de Organización del Territorio y Urbanismo. La valoración del Ayuntamiento ha coincidido con el informe del Gobierno de Navarra y así se le hizo saber al Departamento. Se explicaba que en el documento EMOT del Plan Municipal que se está desarrollando paralelamente, no se veía desarrollo en ese polígono. Ahora el Gobierno de Navarra solicita que el Pleno ratifique el informe y se hará en el próximo Pleno Municipal.</p>
<p><b>7. Aurrekontuak</b></p> <p>2014ko aurrekontuen inguruan Udalak arkitekto teknikoaren kontratazio mantentzeko asmoa du jardunaldi osoz eta udal arkitektoarekin daukan kontratua ere mantenduko da. Beste proposamenik baden galdetzen da baina ez dago proposamen berririk.</p>	<p><b>7. Presupuestos</b></p> <p>De cara a los presupuestos de 2014, el Ayuntamiento tiene previsto mantener la contratación en jornada completa del arquitecto técnico así como el contrato con la arquitecta municipal. Se pregunta si hay alguna otra propuesta pero no se presentan propuestas nuevas.</p>
<p><b>8. LOEE: iradokizunak</b></p> <p>LOEEren inguruko prozeduraren berri ematen da. 48 sarrera daude iradokizunetan eta Udalak positiboki baloratzen du jendearen partehartzea. Nahiz ez den beharrezkoa iradokizunei erantzutea, Udalak erantzuteko konpromisoa hartzen du. Iradokizunak udal taldeak aztertuko ditu eta erredakzio taldearekin bilduko da beharrezkoak ikusten dituen aldaketak egiteko. Horren ondoren prozesu partehartzailean eratutako Foroan aurkeztuko dira moldaketak eta osoko bilkuran onartu. Bertaratutako talde batek dio ez duela prozesu horren berririk izan eta beraiek ere iradokizunak sartu nahi dituztela.</p>	<p><b>8. EMOT: sugerencias</b></p> <p>Se informa sobre el procedimiento EMOT. Hay 48 entradas en las sugerencias y el Ayuntamiento valora positivamente la participación ciudadana. A pesar de no ser necesario responder a las sugerencias, el Ayuntamiento toma el compromiso de hacerlo. El grupo municipal estudiará las sugerencias y se reunirá con el grupo redactor para introducir las modificaciones que se estimen. Después de esto, las modificaciones se presentarán en el Foro creado en el proceso participativo y se aprobarán en el Pleno. Un grupo asistente dice no haber tenido noticia de ese proceso y que ellos también</p>

<p>Beren herrian ez omen da batzarrerik egin. Udaletik erantzuten zaie etxez etxe bidali direla deialdiak eta herrietako alkate guztiak informaturik zeudela eta alkateari ardurak eskatu beharko dietela batzarrearen kasuan. Dena den, iradokizunak sartzen badituzte begiratuko direla eta udal arkitektoarekin ordua eska dezaketela. Alkateak ez du egokia ikusten iradokizunen epea zabaltzea prozesu guztia berriz atzeratuko lukeelako.</p>	<p>están interesados en presentar sugerencias. En su pueblo no se ha reunido el batzarre. El Ayuntamiento responde informando de que las convocatorias se enviaron a los domicilios, que todos los alcaldes jurados estaban informados y que en el caso del batzarre, tendrán que pedirle explicaciones al alcalde jurado. Aun así, si presentan alguna sugerencia se estudiará y se recomienda que pidan hora con la arquitecta municipal. La alcaldesa no contempla la ampliación del periodo de sugerencias porque retrasaría de nuevo todo el proceso.</p>
---	--